

ZURE MUGIKORRAREN BIZITZAREN AMAIERA - E-WASTE, ZABOR ELEKTRONIKOA

Hasi baino lehenago, egin dezagun zabor elektronikoaren edo e-waste delakoaren definizio labur bat. Zabor elektroniko deritza balio-bizitzaren amaierara iritsi diren, eta, beraz, baztertzen diren, gailu elektriko edo elektronikoaren multzoari. Ordenagailu zaharrak, mugikorrek, etxetresna elektrikoak, MP3 erreproduzigailuak, tabletak, USB memoriak, inprimagailuak eta abar izan daitezkeelarik. Batzuk hautsi egiten dira, beste batzuk zaharkituta gelditzen dira teknologiaren aurrerapena dela eta, edo, besterik gabe, gehiago gustatzen zaizkigun ezaugarriak dituen modelo bat ateratzen da. Alegia, mugikorrek zabor elektronikoaren parte bat dira; baina ez dira osagai bakarrak.

Espanian, kalkulatzen da 1.067,40 tona produktu elektroniko merkataturatzen direla urtean, hau da, 23,08 kg pertsonako, eta 832,93 tona hondakin elektroniko sortzen direla, hau da, 18 kg baino gehiago pertsonako.

Arrazoi askok eragiten dute halako zabor elektroniko izugarria, baina, zalantzarik gabe, bi arrazoi nagusi aipa ditzakegu. Kontsumo neurrigabea eta zaharkitzapen programatua, hau da, gailuak asko ez irauteko moduan diseinatzea.



Mugikorrei dagokienez, bi kontu ematen dute atentzioa. Batetik, mugikor baten balio-bizitza 10 urte ingurukoa dela kalkulatzen den arren, 18 hilabete igarotakoan aldatzen da, batez beste (telefonía mugikorraren operadore batzuek iraunkortasun-konpromiso hori ezartzen duten epearekin bat etorritik). Bestetik, nahiz eta mugikor baten elementuen % 90 birziklagarriak izan, oso pertsona gutxi erabakitzen dute hori egitea.

Espanian indarrean dagoen protokoloak urrats hauek ezartzen ditu hondakin elektronikoak eta elektrikoak kudeatzeko. Lehenik, birziklatzeko eta behar bezala kudeatzeko gune egokietara eraman behar ditugu: puntu berdeak, zerbitzu hori ematen duten enpresak, produktu horiek saltzen dizkiguten enpresak berak, eta abar. Bilketa-puntu horietatik tratamendu-instalazioetara bidaltzen dira; horietan, hondakinak tratatu egiten dira, hiru output posible lortzeko (edo, ahal bada, birziklatze-zentroetara bidaltzen dira bigarren bizitza bat emateko). Lehena berriro ere merkatuan sartuko diren birziklatze-frakzioak dira; bigarrena, balorazio energetikoa; eta azkena, ezabatzea.

Baina estatu edo herrialde guztiek ez dituzte horrelako protokoloak; eta nahiz eta Basileako Ituna eta nazioarteko beste lege-esparru batzuk izan, ez dira beti betetzen. Horrela ez denean, hondakin horietako asko Afrikako eta Asiako zenbait lekutara itzultzen dira eta zabortegetan amaitzen dute; han, bertakoek, oso baldintza txarretan eta bere burua gaixotzeko arriskuan jarriz, birziklatzen eta huskeria baten trukean saltzen dituzte.

Zabortegei ezagunenetako bat Agboghoshie¹ auzokoa da, Accran, Ghanako hiriburuan. Agboghoshie ezaguna da zabor elektronikotik ateratzen diren gar eta keengatik. Izan ere, inguruan bizi direnek gailuetako asko erretzen dituzte mineralak lortzeko eta bertako merkatuan saltzeko, eta hori kaltegarria izan daiteke osasunerako. Gero eta ekimen gehiagoren helburua da zabortegei horietan bereizketa beste modu batera egitea, jendearentzat hain arriskutsua izan ez dadin².

¹ <http://www.rtve.es/noticias/20120606/portada-ciberbasura-sin-fronteras/533464.shtml>

² Ezagutu gehiago atalean, ikus Kenya eta emakumei buruzko bideoa.

ARIKETA-PROPOSAMENA

ZINE-FORUMA ETA MUGIKOR-BILKETA

Zine-forumerako materiala: Proiektagailua, Interneteko konexioa duen ordenagailua, "Comprar, Tirar, comprar" dokumentala.

*Gaztetxoagoentzat, beste aldaera hau erabil daiteke: 'WALL-e' filma. *Lana gidatzeko, erabili helbide honetako unitate didaktikoa:* <http://www.cineddhh.org/unidades-didacticas/wall-e/>

Garapena: Lehenengo dokumentala ikusiko da eta emanaldiaren ondoren, eztabaida bat egingo da.

Mugikorrek biltzeko kanpaina:

Bigarrenik, zuen eskola, auzo edota inguruan mugikorrek batzeko kanpaina bat prestazea proposatzen da. Jarraitu beharreko pausuak doaz ondoren:

- 1.- Eslogan bat bilatzea.
- 2.- Eskola batean bada, kartelak egin daitezke, informazio-orriak prestatu, gurasoekin hitzaldi bat antolatu eta/edo gela batzuetatik pasatu.
- 3.- Mugikorrek biltzeko kutzak prestatu (norberaren diseinua) edo **ALBOAN**i eskatu haren kutxetako bat.
- 4.- Behin kutzak beteta daudenean, edota mugikorrek batzeko epea amaitu denean, **ALBOAN** eko egoitzetako batetara eraman ditzakezue. Bertan, hauek birziklatzeaz eta Kongoko ekialdeko proiektutara bideratzeko baliabideetan bihurtzeaz arduratuko gara.

Eztabaida:

- Noiz eta zergatik aldatzen du jendeak mugikorra?
- Zer egin liteke zabor elektronikoa gutxitzeko?
- Zer aukera ezagutzen dira inguru hurbilean mugikorra birziklatzeko edo emateko?

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BITARTEKOAK

Zaharkitzapen programatua bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=24CM4g8V6w8>

Tragedia elektronikoa bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=jYstVpdj3KU>

Ingurumen-ministerioaren webgunea:

<http://www.magrama.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/prevencion-y-gestion-residuos/flujo/aparatos-electr/>

FUHEMen zabor elektronikoa buruzko artikulua:

https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Boletin_ECOS/25/la-basura-tecnologica_D_LOPEZ_MARIJUAN.pdf

Kenyako emakumeei buruzko bideoa eta albistea:

http://noticias.efeamerica.com/56_videos/2561543_la-basura-electronica-una-oportunidad-de-negocio-para-las-mujeres-kenianas.html



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

-en proiektu bat



lortzeagatik

www.gatazkarikgabekoteknologia.org